

Pilota ♦ Euskadiko buruz burukoan izena emateko epea bihar bertan amaituko da

Manomanista ere hankamotz?

Gaur bilduko da berriro Euskadiko Federazioa enpresekin

Enekoitz Telleria / Donostia

JOAN den astelehenean bildu zen azkena Euskadiko Federazioa Abadiñoko bere egoitzan Asegarce (Iñigo Salbidea), Aspe (Javier Salaberri eta Fernando Bidarte), Alti (Juan Carlos Alti) eta Besagaineekin (Enrique Bidarte). Euskadiko buruz buruko txapelketaren inguruan egutegiak, lehiaketa sistema eta gainontzekoak zehazteko eta trukatzeko izan zen bilera hura. Ia lau orduko bilera izan zen, eta, azken orduko aldaketarik izan ezean, gaur arratsaldean bilduko dira alde guztiak berriro, adostasun batera iristeko asmoz —kontuan hartuta bihar bertan amaitzen dela Euskadiko Manomanistan aritzeko izena emateko epea—.

Asperen parte hartzeari buruzkoa da zalantza nagusia, noski —Asegarce-Altik hasieratik eman zien baitza Euskadiko txapelketei—. Entzun zituzten astelehenean Joserra Garai federazioko buruak mahai gainean jarritako datak eta lehiaketa sistema eta gaur jakingo da euren erantzuna. Atzo bertan Aspe enpresatik adierazita-koaren arabera, ordea, euren jarrera azkena eskuz binakoa izandako berbera da: «Aldez aurretik jakin nahi dugu ez bakarrik lehiaketa nola gauzatu den, baita tele-



Ruben Beloki da egungo Manomanistako txapelduna.

bista bidezko hedapenaren berri ere, edo nola konponduko den Euskadiko eta Espainiako Manomanista data bertan bertan jokatzeko».

Itxura guztien arabera, badirudi, beraz, Eskuz Binakako txapelketan gertatutako gauza bera gerta litekeela Manomanistan ere: Asegar-

cek Euskadikoa jokatzeko eta Aspek Espainiakoa. Euskadiko Federazioko presidente Joserra Garaik, ordea, adierazpen baikorrak egin zituen joan den asteleheneko bileraren ostean. «Ezberdintasunak badaude, baina lan eginez eta borondate onarekin konpon daitezke. Lehia-

atzoko emaitzak

DURANGO

Beaskoetxea III.a-Enbil	25
Berraondo-Castro	21
Uriarte-Aranburu	35
Bereikua-Elizegi	33
Castaños-Barrondo	30
Etxalus-Goitia	25

gaurko partidua

GALARRETA. 16:00.

Agirresarobe-Urko / Bereziartua-Amenabar. Ezkurra-Imaz / Zeberio II.a-Eizagirre. Altuna I.a-A. Lekunberri / Urretabizkaia I.a-Aizpuru. Zeberio I.a-Mendizabal / Sarasua-Zandio.

DEPORTIVO. 17:00.

Urkijo-Leunda / Zeberio-Arzelus. Daniel-Juan Pablo / Urkia-Rekalde. Ziskar II.a-Garrido. / Iriondo-Torre.

txokoan

Pilota aukeraketak Bergaran

Euskadiko eskuz binakako bigarren mailako txapelketako finalerako eta Euskal Herriko lehenengo mailako estraineko partidurako pilota aukeraketak egin ziren atzo Bergaran. Koka-Barriola eta Barberito VI.a-Zearra aritu ziren lehenengo eta antzeko pilotak aukeratu zituzten bi bikoteek. Beste aukeraketan, Alustiza eta Patxi Ruizek pilota bizi bat eta beste bi motelagoak aukeratu zituzten. Unanue-Errastirenak indartsuagoak ziren.

Espainiako txapelketako lehenengo partida atzeratu egin da

Olaizola I.a-Elkorok eta Goñi II.a-Zezeagak jokatu behar zuten Espainiako txapelketako lehenengo partidua atzeratzeko baimena eman du Espainiako Federazioak. Elkoro, Goñi eta Zezeagak ezin zuten jokatu eta Otxandorena eta Galarza ordezkioek ere ez. Otsailaren hasieran jokatu da partidu hori.

Gastesiren debuta igandean

Eibarko Astelenan jokatu du datorren igandean Kristobal Gastesi donostiarrak. Oscar Goñi izango du aurreko koadroetan lagun 21 urteko gazteak, eta Tolosa III.a-Almandoz aurka. Espainiako txapelketako Etxaniz-Lasa eta Capellan-Berna partidua jokatu da gero.

Izotz hockeya ♦ Bigarren faseko lehen partida irabazi zuen Angeluk

Prestakuntza fisikoari esker

Koldo Alduntzin / Angelu

AURRERAPAUSO garrantzitsua eman zuen Angeluko Hormadik final-laurdenetara sailkatzeko, sailkapenean gibeletik zuen Chamonix 6-4 hartu baitzuen mendean, astearte gauean. «Esperonuen zailtasunak izatea alpetarrak menderatzeko, gure antzeko egoeran aurkitzen baitziren, baina okerrera epailea izan da», adierazi zigun Karlos Gordobilek.

Bigarren faseko seigarren

partida jokatu zuten, eta partida guztiak galduta ziren biak. Horregatik, norgegiagokoa gogorra eta ez oso teknikoa suertatu zen. Angeluk lehen lerro honekin jardun zuen: Raymond, Dimet-Elorinne, Bilbao-Dostal-Melong. Chamonixek, lehen fasean aritu ez ziren bi jokalariera-bili zituen frantziarrak ez zirenak: Perna eta Grohn.

Bilbao kapitainak jokatu ahal izan zuen 10 partidako zigorra izan arren, zigorrari aipamenik egiten ez zion

eskutitz bat jaso baitzuen. Lehen zatian, partida azkarregi erabakitza jo zuen Hormadik, eta, ondorioz, joko nahastua egin zuen. Alpetarrak aitzineratu ziren Grasen golarekin, baina berehala berdindu zuen partida Melong-ek.

Bigarren zatian ez zen jokoa aldatu, eta Chamonix birritan aitzineratu zen. Angeluk, hala ere, 3-3 berdindu zuen atsedenera joan aitzin (Bilbao, Dimet). Raymond-ek gelditu apartak egin



David Dostalek sartu zituen Angeluren azken bi golak.

zituen. Erabakigarriagoa izan zen Angelu 3. zatian, hiru gol sartu baitzituen: Romain Carry eta Dostal (2). Markagailua: 1-1, 3-3 eta 6-4.

Garaipenarekin, Hormadik zortzigarren jarraitzen du (7 puntu), eta Chamonix 3 puntura da. Larunbatean Amiens hartuko du.